
BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA

"ELIZATXO BAILARAKO 60 ETA 66 ZENBAKIEN ARTEKO TARTEA BERRURBANIZATZEKO PROIEKTUA"REN IDAZKETA-LANEZ ETA OBRA ZUZENDARITZAZ ARDURATZEKO ZERBITZUA ESLEITZEKO



AURREKARIAK

1. PLEGUAREN HELBURUA
2. PROIEKTUAREN HELBURUA
3. PROIEKTUAREN BALDINTZA TEKNIKOAK
4. OBRA ZUZENDARITZAREN BALDINTZA TEKNIKOAK
5. UDALAK EMANDAKO DOKUMENTAZIOA

AURREKARIAK

Elizatxo bailarako 60, 61, 62, 63, 64, 65 eta 66 zenbakiko atarien urbanizazioa urbanizazio zaharra da, eta hirigintza-jarduketa integrala behar du, bideak eta espaloiak hondatuta daudelako, bai eta oinarrizko hornidura-zerbitzuen sareak ere: estolderia, euri-urak, ur-hornidura, elektrizitatea, telekomunikazioak, gasa eta abar.

Hernaniko Udalak behin baino gehiagotan agindu izan die bertako bizilagunei ingurua berrurbanizatuko zuela, baina orain arte ez dio prozesuari ekin, auzoa GI-2132 errepidearen ondoan egonik mugikortasun-planak, bidegorriek, erdigunerako oinezkoentzako sarbideak eta aparkalekuek, oraindik zehazteke daudenak, auzoan eragina izan dezaketelako. Atzerapen hori ikusita, bilera bat egin zen bizilagunekin 2023ko irailean. Bilera horretan, bizilagunak kexu agertu zitzaizkion udalari bizi behar dituzten egoerengatik, izan ere, saneamendu-sarearen buxadurak izan dituzte, eta horrek, antza denez, asentu diferentzialak, hornidura elektrikoko sarean hainbat matxura eta bestelako arazoak eragin ditu.

Horregatik guztiagatik, bizilagunekin egindako bileran erabaki zen ingurua gaur egun dagoen bezala berrurbanizatzeko proiektua ateratzea lizitaziora, hau da, bi norabideko bideari eutsita auzora GI-2132 errepidetik Ansorena Anaiak kalera sartzea, eta gainerako zatiari herri-barruko tratamendu erresidentzialagoa ematea.

Egikaritze-proiektuarekin batera, obren zuzendaritza fakultatiboaren lanak esleitzea ere proposatzen da, auzoa berrurbanizatzeko lanak lehenbailehen egin behar baitira. Hala, proiektua idatzita edukita eta lanak esleituta egonda, haiek hasteko moduan egongo ginateke.

1. PLEGUAREN HELBURUA


Plegu honen helburua da Hernaniko Elizatxo bailarako 60-66 zenbakien arteko tartea berrurbanizatzeko proiektua idazteko eta obra zuzentzeko zerbitzuaren kontratazioa arautuko duten baldintza teknikoak finkatzea.

1. PROIEKTUAREN HELBURUA

- Exekuzio proiektuaren irizpideak:

(a) Berrurbanizatze-proiektua lurralde-eremu honetarako idatziko da: (HH) EL-05, hego-mendebaldea, hau da, Elizatxoko 60tik 66ra bitarteko atarien urbanizazioa, biak barne. Bide eta espaloietan, haur-parkean eta hego-mendebaldeko ezpondan egingo dira jarduketak.
(b) Udalak Elizatxo bailarako 60-66 zenbaki arteko tarteari buruz dituen datuak, informazioa eta zerbitzuen jasotze topografikoak zuzenak direla egiaztatzea: estolderia-sarea (gaur egun sistema unitarioa), ur-hornidura, argiak, kutxatilak eta abar. Beste sare batzuekin osatzea: gasa, energia elektrikoaren sarea, telekomunikazioak, eta ikustea zeintzuk dauden lurperatuta eta zein diren airekoak.
(c) Aireko instalazio guztiak lurperatzeko aukera aztertzea, jarduketaren kostuaren arabera.
(d) Egungo egoeraren kota eta topografikoa egiaztatzea, atari eta garajeetarako irisgarritasunaren gaia baloratzeko. Euri-uren bilketa ere baloratu behar da, koskak saihestearen ondorioz eraikinetan ura sartzeko arriskurik egon ez dadin.
(e) Gaur egun ez dago sare bereizlerik. Ur beltzen sare berri bat planteatzea proposatzen da, eremutik kanpo gaur egun dagoenarekin lotu ahal izango dena. Euri-urak biltzeko sarerik ez dagoenez, SUD teknika erabiltzea proposatzen da, hau da, drainatze jasangarriko hiri-sistemen teknika. Baloratu beharko litzateke zer lokal geratzen diren sestra azpian eta non erabili behar diren teknika horiek. Proposatzen da bilketa drainatzaile bat sortzea, zuhaitz-txorkoekin eta parterreekin jolastea eta,

azkenean, drainatze-eremu handiago bat sortzea gaur egun haur-jolasak eta hego-mendebaldeko parterre-ezponda dauden eremuan. Sistema xurgatzeko gauza ez denerako ezponda horretan gainezkabide bat jartzea edo ur beltzen sarera by pass bat egitea proposatzen da.



(f) Haur-parkearen egungo espazioan, drainatze-sistema nagusiaz gain, hainbat adinetarako espazio komun eta irisgarriak planteatu ahal izango dira; izan ere, gaur egun auzoan bizi diren adineko pertsonak batzuetan bilobak zaindu behar izaten dituzte.

(g) Argiteria-sarea kontsumo txikikoa izango da, eta kable bidez erregulatuko da. Ahal dela, hari gabeko teknologiarik gabekoa edo "smart" motakoa, eta kode libreko edo irekiko sistema bat erabilita. Argiteria kode ireki bidez kudeatzeko sistemarik ez badago, sistema lokaleko argiteria-koadrotik erregulatuko da. Obra egin ondoren, udal-argiteria publikoaren arduradunei prestakuntza eman beharko zaie, gutxienez 4 orduko ikastaroan, "kode irekian" instalatutako sistemaren funtzionamendua ikas dezaten. Asmoa da Hernaniko Udalak sistema modu autokudeatu eta subiranoan kudeatu ahal izatea, lizentzia itxien mende egon gabe. Luminaria guztiek lanpara babesteko gaintenkagailu bat izan beharko dute, bide publikoaren kotatik bertara iristeko moduan, argi-puntu horren mantentze lanak egin ahal izateko eta matxurak prebenitu eta erraz konpondu ahal izateko. Hernaniko Udalak garapen teknologiko horiek publiko egin ahal izango ditu, irizpide honekin bat eginda: "diru publikoa: kode irekia edo kode publikoa".

(h) Arazo bat dago GI-2132 errepidearekin. Ibilgailuek zuzengune horretan hartzen duten abiadurak arriskuak dakartza auzoko ibilgailuak errepide horretara sartzeko eta handik irteteko orduan, eta arazo akustikoak ere bai. Ibilgailu horien abiadura nola murriztu aztertu beharko da, auzoko sarrera eta irteera seguruagoa egiteko eta kutsadura akustikoa arintzeko. Horrek hasierako esparrutik kanpoko lanak eskatzen baditu, proiektuan jaso beharko dira.

(i) Bada, bestalde, auzoko bizilagunek aurkeztutako hainbat eskaera-idazki. Idazki horiek aztertu egingo dira, eta egokiak diren ala ez baloratuko.

(j) Premisa horiek edo behar bezala justifikatutako beste batzuk oinarri hartuta, lehen zirriborroa idaztea eta ondorioak eta hasierako aurrekontua udal-teknikariei aurkeztea proposatzen da. Era berean, inplikatutako beste administrazio , konpainia edo eragile batzuen baimenak (Gipuzkoako Foru Aldundiko Errepide Departamentuarena, esaterako) izapidetzeko dokumentazio teknikoa prestatu beharko da .

(k) Lehen bilera horren ondoren, idazketa-taldea auzoko bizilagunekin bilduko da, zirriborroaren berri emateko eta bizilagunek beste ekarpen batzuk egin ahal izan ditzaten. Idazketa-taldeak, udal-teknikariekin batera, ekarpen horiek aztertu eta, hala badagokio, gehituko ditu, eta ekarpenak egin dituzten bizilagunei erantzungo die. Fase hau denboran luza daiteke eta ziklo bat baino gehiago izan.

(l) Aurreko fase hori amaitutakoan, auzokideekin lehenik eta udaleko zerbitzu teknikoekin ondoren, eta behin betiko irtenbidea zehaztuta dagoenean, ELIZATXOKO 60 ETA 66 ZENBAKIEN ARTEKO TARTEA BERRURBANIZATZEKO PROIEKTUA idatziko da.

Enkargua esleitu eta lehenengo astean bertan bilera bat egingo da, abiapuntuko premisak zehazteko.

Hainbat zeregin lanak esleitu eta 3 hilabeteko epean egingo dira, hain zuzen ere "a"tik "j"ra arteko zereginak.

Udal-teknikariek planteatu den konponbidea onartzen duten bitartean, hilabete bat gehiago igaro ahal izango da, eta epe horretan beharrezko diren beste baimen baltzuren inguruan lan egingo da.

Azken proiektua idazteko lanetarako beste 2 hilabete gehiago izango dira. Hau da, proiektua esleitu eta 6 hilabeteko epean entregatu beharko da.

2. PROIEKTUAREN BALDINTZA TEKNIKOAK

2.1. ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK

- Exekuzio proiektua Administrazioak nahitaez bete beharreko jarraibide teknikoetara egokitu beharko da, eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 123. artikuluan adierazitako dokumentuak jasoko ditu. Gainera, indarrean dagoen araudi sektorialean ezartzen den dokumentazio guztia jasoko du, eta obrak behar bezala egiteko behar den dokumentazio guztia, bai eta beste profesional batzuen parte-hartzea behar denean ere, horrek administrazioari inolako kosturik eragingo ez diola. Proiektuak teknikoki justifikatu beharko ditu proposatutako konponbideak, aplikatzekoa den araudiak eskatzen dituen zehaztapenen arabera.
- Obra egiten den bitartean, eta enkarguaren xede diren dokumentuen errekerimenduetan, bete beharko dira Hernaniko udal araudian, urbanizazio ordenantzen zirriborroan eta plegu honetan adierazitako baldintzak. Era berean, Udalak ezartzen dituen irizpideak eta jarraibideak beteko dira. Horretarako, lanak koordinatzeko eta haien jarraipena egiteko beharrezko jotzen diren adina bilera egingo dira.
- Talde esleipendunak bilera horien akta egin beharko du.
- Udaleko obra eta zerbitzuen sailarekin koordinatuta lan egingo du, baita zerbitzuak hornitzen dituzten konpainiekin ere (elektrizitate, gas, telekomunikazio eta abarretako konpainiak). Eta administrazio sektorialekin (Foru Aldundiko Errepide departamentua...), haiekin adostutako konponbideak kontrastatuko dira, betiere Udalaren irizpideei jarraikiz.
- Horiek horrela, obra-proiektuaren idazketak honako hauek jasoko ditu:
- Exekuzio proiektuak eraikuntza-obrak argi eta zehatz definituko ditu, obren zuzendaritza beste lantalde batek bere gain hartu ahal izateko moduan.
    - Exekuzio proiektua idazteko beharrezkoa den aurretiazko informazioa lortu, beharrezko datu lokalak barne. Udalak emango du topografia (eskala: 1:500).
    - Administrazio sektorialek eta zerbitzuen hornidura-konpainiek errekerimendurik egiten badute, haiei aurkezten zaizkien alegazioei buruzko txosten teknikoak idazteko laguntza teknikoa.
    - Behin betiko proiektua prestatzean eta entregatzean egin daitezkeen zuzenketak.
- Azterketa geoteknikoari dagokionez, beharrezkoa izanez gero (lurrazpiaren iragazkortasuna), udalari dagokio hura kontratatzea, eta enpresa esleipendunak hau egin beharko du:
    - Geoteknian adituak diren hiru enpresari eskaintzak aurkez dezatela eskatzeko dokumentazioa zehaztu.

- Aurkeztutako eskaintzak aztertu eta esleipen-proposamena idatzi.
- Oro har, azterlan geoteknikoa esleitu eta koordinatzeko beharrezkoak diren lanak egin.

- Elkargoaren Nahitaezko Oniritziari buruzkoa den abuztuaren 5eko 1000/2010 Errege Dekretuaren 4. artikuluak xedatzen duenaren arabera, proiektuak elkargoaren bisatua beharko du.

2.2. EXEKUZIO PROIEKTUAREN EDUKIA

- Exekuzio proiektua dokumentu hauetan formalizatuko da:

D.1.- Memoria eta eranskinak, puntu hauek jasoko dituztenak:

- Proiektuaren aurrekariak eta helburua (euskaraz eta gaztelaniaz).
- Bestelako jarduketekiko koordinazioa.
- Abiapuntuko oinarriak: Topografia eta geoteknia.
- Hirigintza plangintza.
- Aplikatzekoa den araudi sektorialaren justifikazioa.
- Dauden zerbitzuak.
- Dagoen ur beltzen sarearen azterketa eta idatzi beharreko proiektuarekin duen bateragarritasuna.
- Obraren deskribapena: proiektuaren obren nondik norakoa, bide sistema orokorra, zerbitzuen hartune orokorrak (sareak), eragindako zerbitzuak, ingurumen txostena, etab.
- Obren exekuzioa: Obra-plana, exekuzio-fase eta -epeetan adierazita, honako hauek aipatu beharko direla: zirkulazio-etenak, bide publikoen okupazioa edo zerbitzuen funtzionamenduaren etenak, etab.
- Lurren okupazioa.
- Enpresa kontratistaren sailkapena.
- ...

D.2.- Baldintza agiria

D.3.- Neurketak eta aurrekontua. Partida eta kapituluen arabera, unitate-prezioekin eta prezio banakatuekin. Era berean, aurrekontua kapituluka aurkeztu beharko da, eskulana, materialak eta bitarteko osagarriak bereizita.

D.4.- Eskulana kategoriatan identifikatu eta kuantifikatuko da, Gipuzkoako eraikuntzako hitzarmen kolektiboaren arabera, eta GANTT diagrama bat egin beharko da.

D.5.- Planoak.

D.6.- Segurtasun eta osasun plana.

D.7.- Eraikitze eta eraiste lanen hondakinen kudeaketari buruzko azterlana.

D.8.- Kalitate kontroleko programa.

D.9.- Beharrezko instalazioen proiektu zehatzak.

2.3. EXEKUZIO PROIEKTUA ENTREGATZEA

- Dokumentazio guztiaren bina (2) kopia aurkeztuko dira paperean, DIN-A4 formatuan, edo formatu horretara tolestua, eta karpeta batean sartua. Horrez gain, dokumentazio idatziaren eta grafikoaren kopia bat aurkeztuko da euskarri informatikoan, bai PDF formatuan, bai formatu editagarrian (testuak, marrazkiak...)

3. OBRA ZUZENDARITZAREN BALDINTZA TEKNIKOAK

3.1. LANTALDEAREN OSAKETA

Zuzendaritza fakultatibotzat jotzen da zeregin guztiak egiteko eta kontratuan jasotako dokumentu guztiak sinatzeko behar adinako titulazioa eta kualifikazioa duten profesionalek osatutako lantaldea.

- Zuzendaritza-lanek osatuko dute Obraren Zuzendaritzarekin batera mintzagai ditugun obrak zuzendu, kontrolatu eta zaintzeko ezinbestekoak diren efektiboen koadroa.

- Esleipendunak, une oro, eskatutako esperientzia eta titulazioa duten profesionalak atxiki behar dizkio kontratuaren exekuzioari, eta profesional horiek esleipendunarekin lan-lotura izango dute. Udaleko zerbitzu teknikoek langile gaituak atxiki daitezela eskatzeko eskubidea izango dute, eta konpromiso hori ez betetzea kontratua suntsiarazteko arrazoi izango da.

- Lantaldearen barruan lantalde buru bat proposatuko da, eta hura izango da Hernaniko Udalak egindako enkarguaren zuzendaritzaren solaskide bakarra. Lan hauek egingo dituen pertsonaren izen-abizenak zehaztuko dira eta hori zorrotz beteko da.

- Hernaniko Udalaren hizkuntza baldintzak bete beharko dira. Plegu honekin batera doaz. Hau da, gutxienez lantaldea osatzen dutenak elebidunak izan beharko dira, udalarekiko ahozko nahiz idatzizko komunikazio euskaraz izango dela bermatzeko.

- Kontratuan ez dira Segurtasun eta Osasun Koordinazioko lanak sartzen. Udalak kontratu honetatik aparte kontratatuko du Segurtasun eta Osasun Koordinazioa, baina Obra Zuzendaritzako lantaldearekin batera lan egingo du.

3.2. ZUZENDARITZA FAKULTATIBOAK EGIN BEHARREKO LANAK ETA ZEREGINAK

3.2.1. HASIERAKO LANAK

3.2.1.1. PROIEKTUAREN AURRE TXOSTENA

- Obra-zuzendaritzak obraren eta proiektuaren azterketa zehatza egingo du, eta antzemandako omisio eta anomaliak txosten batean jasoko ditu.

- Lehen txosten hori kontratua sinatu eta gehienez ere bi (2) asteko epean aurkeztuko zaie Udal Zerbitzu Teknikoei.

- Udal Zerbitzu Teknikoek txostena aztertuko dute, eta, aurkezten denetik gehienez ere bi asteko epean, egokitzat jotzen dituzten alderdiak osa daitezela agindu ahal izango dute, edo, bestela, txostena errepika dadila, ezartzen diren irizpideei jarraituz, onartzeko moduan dagoela uste duten arte.

3.2.1.2. LAN-PLANGINTZAREN AZTERKETA

- Obra zuzendaritzak kontratazio-mahaiarentzat lagungarri izango den txosten bat egingo du. Txosten horretan enpresa lizitatzaileek aurkeztutako eskaintza teknikoen balorazioa egingo da.

- Txosten hori KONTRATA PROPOSAMENAREN TXOSTENA deiturikoa izango da. Txosten horretan, obren Kontrata esleipendunaren eskaintzaren azterketa zehatza egingo da, alderdi guztiak kontuan hartuta (lan-eskua –eta horren kostua, ezarritako hitzarmenaren arabera–, materialak, makineria, kalitate-kontrola, teknikariak), eta Hernaniko Udal Zerbitzu Teknikoei alderdi interesgarri guztien berri emango zaie.

- Txosten horrek proposamenak xehetasunez aztertuko ditu, kalitatearen eta bideragarritasunaren arabera, eta jasoko du, batetik, eskaintza teknikoen laburpen-taula bat, proposamenen analisia jasotzen duena eta konparazioak egiteko aukera ematen duten iruzkinak dituena, eta, bestetik, balorazio-proposamen bat.

- Txosten horretan, gainera, Kontratak proposatutako Lan-plangintza aztertuko du Obra Zuzendaritzak, bai eta plangintza hori ezartzeko abiapuntu izango diren exekuzio metodoak, ekipoak, materialak, azpikontratistak eta abar ere. Era berean, helburuak betetzeko aukeraren eta bitarteko gehigarriak aurreikusteko beharraren berri emango da.

- Gainera, aztertuko da programa obraren inguruabar zehatzei egokitzen ote zaien (hasteko garaia, konpondu gabeko eraginpeko zerbitzuak), helburuak lortzeko aukerak zein diren eta aurreikusi beharreko behar osagarririk badagoen.

- Txosten hau aurkezteko epea bi astekoa izango da, dokumentazio teknikoa entregatzen denetik.

3.2.1.3. KALITATEA ETA INGURUMENA KONTROLATZEKO PLANA

- Lanak hasi aurretik, kontratistak proiektuko obra unitate guztien Kalitatea Kontrolatzeko Plana egingo du, oinarri gisa araudia eta indarrean dauden gomendioak hartuta (EKT, NTE araudiak, etab.) Plan horrek ezarriko ditu obretan egin beharreko entseguen jarraibideak.

- Kontratistari dokumentu hori exijituko zaio eta obren Zuzendaritza Fakultatiboak aztertu eta onartu beharko du. Haren kopia bat obra-bulegoan eduki beharko dute, derrigorrezkoa den gainerako dokumentazioarekin batera.

- Era berean, kontratistaren Ingurumena Bermatzeko Plana aztertuko da eta haren Segurtasun Plana definituko.

3.2.1.4. HONDAKINAK KUDEATZEKO PLANA.

- Eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzeko den 112/2012 Dekretuaren arabera, obra gauzatzen duen pertsona fisiko edo juridikoak eraikuntza eta eraispen hondakinak kudeatzeko plana aurkeztu beharra dauka.

- Plan hori Zuzendaritza Fakultatiboak onartu eta udalak ontzat eman behar du, eta obraren kontratu-dokumentuen parte izango da.

3.2.1.5. ZUINKETA EGIAZTATZEKO AKTA

- Zuinketaren egiaztapen akta egingo da obren exekuzio kontratuan aurreikusitako epearen barruan eta, horrek markatuko du, hala badagokio, obren hasiera.

3.2.2. ZUZENDARITZA-LANAK OBRAK EGITEN DIREN BITARTEAN

3.2.2.1. LANEN JARRAIPENA

- Enpresa esleipendunak etengabeko presentzia izango du obran, eta gutxienez zazpi (7) egunean behin bilerak egingo ditu Kontratarekin, obran arazoak sortzen badira haiek aztertzeko. Obra zuzendaritzak bilera horien berri jaso beharko du, idatziz, Aginduen eta Asistentzien Liburuan edo horretarako idatzitako aktetan.

- Aginduen eta Asistentzien Liburua eta Gertaeren Liburua ofizialak izango dira, eta beti egon beharko dute obrako bulegoan.

- Obra egin bitartean ematen diren agindu guztiak idatziz jakinaraziko zaizkio kontratistari.

3.2.2.2. HILEROKO TXOSTENAK

- Obra Zuzendaritzak obren garapenari buruzko txosten bat idatzi beharko du, "HILEROKO TXOSTENA" izenekoa. Bertan jasoko dira obran zehar gertatutako gorabehera guztiak. Hileroko txostena dokumentu eta atal hauek jasoko ditu:

    - Obraren egoera orokorra, argazkiz horniturik.

    - Obraren kontrol ekonomikoa

    - Obraren plangintzaren eguneratzea. Exekuzio-epea atzeratzen bada, zehapen partzialak ezarri ahal izango dira ziurtapenean berandutzeagatik, behar bezala justifikatuta. Zehapen horiek bertan behera geratuko dira epeak berreskuratzen badira.

    -Ausaz egiaztatzea, segurtasun- eta osasun-koordinatzailearekin batera, langileak Gizarte Segurantzan alta emanda daudela eta haien nomina bat datorrela beren lanbide-kategoriarekin eta Udalak esleipen-oinarrietan ezartzen duen hitzarmen kolektiboarekin.

    - Hileroko ziurtagiria

    - Aginduen Liburuaren kopia eta aktak sinatuta

    - Gorabeheren Liburuaren kopia

    - Egindako kontrolen eta entseguen kopia

- Txosten hauek paperean eta euskarri informatikoan entregatu beharko dira.

- Txostenak entregatzea ezinbesteko baldintza izango da Zuzendaritza Teknikoaren ordainketak tramitatzeko.

-

3.2.2.3. OBRAREN KONTROL EKONOMIKOA

- Obra Zuzendaritzak eta kontratistak sinatutako ziurtagiriak Hernaniko Udalean egon beharko dira hilabete bakoitzaren hasieran, jabetzaren ordezkariak ontzat eman ditzan.

- "HILEROKO TXOSTENA" izenekoaren obraren kontrol ekonomikoaren atalean zehatz-mehatz aztertuko dira, egon baldin badaude, desbideratzeak, haien nondik norakoak, arrazoiak, obraren zenbateko globalean duten eragina, ondorioak eta gomendioak. Era berean, proiektuko obra-unitateen partiden eta agertzen diren partida kontrajarrien zerrenda osoa egingo da, obraren azken kostuaren estimazioa edo aurreikuspena une oro lortu ahal izateko.

- Obrako neurketa guztien kontrol ekonomikorako, beharrezkoak diren altxaketa topografikoak eskatuko dira.

3.2.2.4. LANEN EXEKUZIO MATERIALAREN KONTROLA

- Obrak egiten diren bitartean, obra-zuzendaritzak obrak egiteko prozesu osoa zainduko du.

- Obra-zuzendaritzak une oro exijituko du bete dadila pleguetan exekuzio-sistemari buruz ezarrita dagoena. Planoen interpretazioari, materialen baldintzei eta obra unitateen exekuzioari buruz sor daitezkeen alderdi teknikoak zehaztuko dira, beti ere kontratuaren baldintzak aldatzen ez badira.

- Egin beharreko esku-hartzeren bat pleguetan zehaztuta ez badago, horri dagozkion baldintza eta alderdi teknikoak proposatuko dira. Berdin jokatuko da obrak gauzatzearen ondorioz edo beste gorabehera garrantzitsuren baten ondorioz hirugarrenei kalterik eragitea gertatuz gero.

- Salbuespen kasutan, obretan gorabeherarik edo arazorik sortzen bada eta, ondorioz, kontratua ezin bada behar bezala bete edo aldatu behar baldin bada, gorabehera edo arazo horiei aurre egiteko proposamenak izapidetuko dira aurretik.

- Erakunde ofizialetatik eta partikularrengandik obrak egiteko eta obrak eragindako ondasunak okupatzeko behar diren baimenak lortze aldera egin beharreko atze-aurreak proposatuko dira, eta obrekin lotutako zerbitzu eta zortasunek sortzen dituzten arazoak konponduko dira.

3.2.2.5. OBREN EXEKUZIO EPEAREN KONTROLA

- Obra Zuzendaritzak proiektuaren exekuzio epeen kontrolean eta optimizazioan parte hartuko du eta horretarako kontratistak proposatutako plangintzak berrikusi eta aztertuko ditu.

- Exekuzio epe errealen asteroko kontrol eta jarraipena egingo du, eta ezarritako programazioarekin konparatu eta beharrezko jotzen dituen neurri zuzentzaileak proposatuko ditu, ahal den neurrian, exekuzioan atzerapenak saihesteko edo murrizteko.

- Plangintza hori izango da Obra Zuzendaritzak epeen jarraipena egiteko oinarria, eta eguneraketa hileroko txostenarekin eta ziurtagiriekin batera entregatu beharko da. Aurreikusitako epeak bete diren edo ez jakinaraziko da, eta desbideratzeak gertatzen badira alternatibak aztertuko dira.

- Lan erritmoa eteten edo nabarmen jaisten bada, esleipendunak, dagokion txostenaren bidez, horren arrazoiak eta Kontrataren edo hirugarrenen erantzukizuna adieraziko du.

- Halaber, behar diren luzapen orokor edo partzialen berri emango da.

- Obraren Hileroko Txostenean obrako azpizatiketetako bakoitzean hilabetean zehar egindako lanak zehaztuko dira. Aurreratuta edo atzeratuta dauden lanak zehaztuko dira, eta horren arrazoiak, bide kritikoan dauden ala ez, beste zein lanetan eragiten duten eta abar azalduko da.

3.2.2.6. KALITATEA, INGURUMENA ETA HONDAKINAK KONTROLATZEKO PROGRAMAREN JARRAIPENA

- Materialen eta gauzatutako obraren kalitate kontrola egingo da, kontratu-dokumentuetan eta kasu bakoitzean aplikatzekoak diren Arau Teknikoetan zehaztutakoa kontuan hartuta, eta, kasurik orokorrenean, honako jarduketa eta eragiketa hauek barnean hartuta:
    - Kontratak obra-materialen eta -unitateen laginak hartzeko lanak antolatzea, material edo unitate bakoitzerako aldez aurretik aztertutako sistematika baten arabera, eta lagin horiek behar bezala definitzea entitatean eta kopuruan, behar bezain adierazgarriak izan daitezen.
    - Hala dagokionean, Kontratak entseguak "in situ" egitea. Kontratak laginak identifikatzea, zaintzea eta kontserbazioa gainbegiratzea.
    - Laginak laborategira baldintza egokietan bidali eta garraiatzen direla gainbegiratzea.
    - Langile kualifikatuek entseguak egiten dituztela gainbegiratzea, eta entsegu-parte guztiak dagozkien inprimakietan jasotzea.
    - Pleguan zehaztuta ez egonda ere beharrezkoak diren entseguak laborategi homologatuetan egingo dira.
    - Aurreko paragrafoan aipatutako entsegu edo proben emaitzak ahalik eta azkarren eskuratzen saiatuko da obra-zuzendaritza. Kontratari emaitzak emango zaizkio, behar izanez gero dagozkion zuzenketak egin ditzan.
    - Hileko txostenean honako hauek jasoko dira: hartutako testiguen eta laginen kopurua, egindako neurketak eta saiakuntzak eta emaitzen laburpena.

3.2.2.7. SEGURTASUN ETA OSASUN PLANA

- Lanak hasi aurretik, Obra Zuzendaritzako ordezkari batek, Osasun Segurtasuna Koordinatzeko arduradunarekin eta Obra Burutzarekin batera, kontuan hartu beharreko neurri zehatzen programa berrikusiko du.

3.2.2.8. ALDAKETAK OBRAN ZEHAR

- Obra Zuzendaritzak ezin izango du zuzentzeko esleitu zaizkion obretan aldaketarik egin kontratazio organoak obra horiek eta dagokion aurrekontua aldez aurretik onartu gabe. Salbuespenezko kasuetan bakarrik egin ahal izango du, indarrean dagoen administrazio-kontratazioari buruzko araudian aurreikusitako baldintzak zehatz-mehatz beteta.
- Obra Zuzendaritzak Hernaniko Udalaren oniritzia jaso behar du, derrigor, proiektuan edozein aldaketa egiteko.
- Onartutako proiektuan aldaketarik egin behar izatea gertatuz gero, jabeari jakinarazi beharko zaio, egin baino lehen, organo eskudunak aztertu eta onartu ahal izateko behar besteko aurrerapenaz, obraren exekuzioan atzerapenik eragin gabe.
- Obra egiten den bitartean onartutako proiektuarekiko aldaketarik egonez gero, zuzendaritza fakultatiboak proiektu aldatuak eta osagarriak idatzi eta aurkeztuko ditu (2 ale), haiek tramitatzeko behar den dokumentazioarekin batera, eta ez du inolako erreklamazio ekonomikorik egiteko eskubiderik izango.
- Era berean, eta beharrezkoa izanez gero, Zuzendaritza Fakultatiboak obra-kontratuaren aldaketa formalizatzeko behar den dokumentazioa prestatuko du, inolako erreklamazio ekonomikorik egiteko eskubiderik gabe.

3.2.3. OBRAKO AZKEN DOKUMENTAZIOA

- Obraren bukaeran, obra amaieraren likidazioarekin batera, hainbat agiri entregatuko dira, hain zuzen ere, Hernaniko Hirigintza Antolamenduaren Osagarri den Udal Ordenantza Multzoaren I. Liburuaren Hirigintza Ordenantzaren Bigarren tituluan (II) jasotako hauek:

(a) Obretako Zuzendaritza Teknikoaren obra-amaieraren ziurtagiria, dagokion Elkargo Profesionalak ikus-onetsita.

(b) Obren behin betiko ("As Built") egoeraren planoak. Plano horietan azalerako urbanizazioa, egindako azpiegitura-sare guztiak eta elementu berezi guztiak jasoko dira, eta aipatutako ordenantzako II.7.1.B atalean xedatu bezala aurkeztuko dira. Plano horiek Hernaniko Udalari emango zaizkio, udal kartografian eta GISen integratuta gera daitezen. Udal-delineatzaileak dokumentazio horri oniritzia eman arte, esleipendunari ez zaio jarritako abala itzuliko.

(c) Obren Kalitatea Kontrolatzeko Liburuaren kopia, onartutako Urbanizazio Obren Proiektuan jasotako Planean aurreikusitakoaren arabera.

(d) Urbanizazio-instalazioen funtzionamendu egokia egiaztatzen duten ziurtagiriak.

(e) Obran esku hartzen duten gremioen zerrenda, horien arduradunak nor diren adierazita eta gauzatutako obra-zatiak deskribatuta.

(f) Urbanizazioa erabili eta mantentzeko eskuliburua.

(g) Administrazio kontratatzaileak eskatutako beste edozein agiri.

- Dokumentazio guztiaren bina (2) kopia aurkeztuko dira paperean, DIN-A4 formatuan, edo formatu horretara tolestua, eta karpeta batean sartua. Horrez gain, dokumentazio idatziaren eta grafikoaren kopia bat aurkeztuko da euskarri informatikoan, bai PDF formatuan, bai formatu editagarrian (testuak, marrazkiak...)

3.2.4. OBREN EGOERARI BURUZKO TXOSTENAK. OBREN HARRERATIK URTEBETERA EGINDAKO TXOSTENA ETA BERMEA IRAUNGI AURREKO TXOSTENA

OBREN HARRERATIK URTEBETERA EGINDAKO TXOSTENA.

- Obrak jaso eta lehen urtea bete aurreko hamabost egunen barruan, zuzendaritza fakultatiboak obren egoerari buruzko txostena egingo du, eta antzemandako akatsak zehaztuko dira bertan. Adieraziko da, hala badagokio, zein den akats horien jatorria: eraikitakoaren erabilera ala obra egitean egindako akatsak. Beste gorabeherarik ez badago, Hernaniko Udalak proiektua idazteko eta obra-zuzendaritzarako jarritako abala haztatuko du, eta horrela, obrak egiteko ardura duen enpresak eskaintzen duen berme-aldiko urteetan abala mantentzeak esleipendunari ekarriko liokeen gehiegizko gastua saihestuko litzateke.

BERMEA IRAUNGI AURREKO TXOSTENA.

- Enpresa kontratistak berme-epea luzatzeko eskaintza egiten badu, txosten hori ere, udalari inolako kosturik ekarriko ez diola, epea amaitu baino hamabost egun lehenago idatziko da, eta, era berean,

obren egoera adieraziko da, antzemandako akatsak zehaztuta. Adieraziko da, hala badagokio, zein den akats horien jatorria: eraikitakoaren erabilera ala obra egitean egindako akatsak.

3.3. ADMINISTRAZIOAREKIKO HARREMANA

3.3.1. ADMINISTRAZIO KONTRATATZAILEARI LAGUNTZEA.

- Esleipendunak Administrazio kontratatzaileari emango dizkio, kostu gehigarririk gabe, kontratuen xedea behar bezala garatzeko eta betetzeko administrazio horrek beharrezko jotzen dituen zerbitzu profesional guztiak, hala nola, azalpen bileretan parte hartzea, herritarrei edo eragindako zerbitzuei informazioa ematea, etab., bermearen epea amaitu arte.

- Obrak irauten duen bitartean Hernaniko Udaleko arduradunekin bilerak egingo dira, gehienez ere hilabeteko tartearen, obraren egoera teknikoaren eta ekonomikoaren berri emateko dagokion dokumentazioaren bidez eta zuzendaritza fakultatiboak egindako azterlanen bidez (HILEKO TXOSTENA).

- Bilera horiek izango dira zuzendaritzak helburuak eta exekuzio konpromisoak zehazteko gunea eta hauek betetzen diren ikusteko jarraipena eta kontrola azaltzeko.

- Aurrekoez gain, behar adina bilera puntual egingo dira zuzendaritza fakultatiboak edo Hernaniko Udaleko teknikariek eskatuta.

- Zuzendaritzak kudeaketa eta koordinazio lanak egingo ditu obraren exekuzioan interferentzia sor dezaketen elementu guztiekin, bai erakunde edo zerbitzuak bai eragindako hirugarrenak ere: Uraren Euskal Agentzia, Gipuzkoako Foru Aldundia, eremuko jabeak, zerbitzu enpresak (elektrizitatea, gasa, telekomunikazioa, ura), etab.

- Kontzeptu horren pean, eskaerak edo gatazkak kudeatuko ditu udaleko zein kanpoko erakunde eta zerbitzuekin, eta haien eskaerak, txostenak, kexak eta konponbideak izapidetuko ditu. Ondoren, Hernaniko Udalari horien berri emango dio, jakinaren gainean egon dadin eta onar ditzan.

- Proiektuaren zati bakoitzak bere zuzendaria baldin badauka, obra-zuzendaritzak teknikari guztiak koordinatuko ditu.

3.3.2. TXOSTENEN HIZKUNTZA

- Hernaniko Udalarekiko komunikazioa eta obra-txostenak, ahal dela, euskaraz izango dira.

- Zuinketa-akta eta obra-onarpenaren akta euskaraz edo, gutxienez, ele bitan idatzi beharko dira.

- Hernaniko Udalaren hizkuntza baldintzak bete beharko dira. Plegu honekin batera doaz.

4. UDALAK EMANDAKO INFORMAZIOA:

- Kartografia topografikoa.

- Zerbitzuen planoa eta informazioa.